

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**334/2016 Foru Deketua, Diputatu Nagusiarena, azaroaren 25eko. Honen bidez onartzen da Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, berak eskatutakoa, Gizartze Zerbitzuen Saileko foru diputatu kargutik kentzea**

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren bidez (uztailaren 6ko ALHAO. 79. alea), Beatriz Artolazabal Albeniz andrea izendatu zen Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu.

Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauaren 19.8 artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, diputatu nagusiari dagokio foru diputatuak izendatzea eta kargutik kentzea, eta eskumena du, aldi berean, foru arau bereko 44. artikulua xedatutakoa kontuan izanda, beste foru diputatu bati gomendatzeko kasuan kasuko saileko gaiez ardura dadin, foru diputaturen bat kargutik kentzen bada eta ez bada beste izendapenik egin.

Horrenbestez, eta eskumen horiek baliatuta, hauxe

#### XEDATU DUT

Lehenengoa. Beatriz Artolazabal Albeniz andrea Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu kargu uztea onartzea eta, bide batez, eskerrak ematea Aldundiari eta Arabako Lurralde Historikoari eskainitako zerbitzuengatik.

Bigarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak hartuko ditu beregain Gizarte Zerbitzuen Saileko gaiak eta funtzioak.

Hirugarrena. Arabako Biltzar Nagusiei ematea foru dekretu honen berri, eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratuko den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 25a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*